

**AITA MENNI ETA SAN JUAN DE DIOS OSPITALEETARA BISITALDIA
VISITA HOSPITALES AITA MENNI Y SAN JUAN DE DIOS**

2023-09-11 Arrasate 11-09-2023

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, Santa Aguedako Osasun Etxekook, Aizpak Ospitalariak, San Juan de Dios eta Aita Menni ospitaleetako arduradunok, jaun-andreok, egun on!

Nire lehenengo hitzak zorionak esateko dira. Zorionak, bihotz-bihotzez, 125 urte betetzeagatik! Bigarrenik, eskerri asko! Eskerrik asko urte hauetan guztietan eskaini duzuen zerbitzuagatik!

Denbora honetan guztian, 125 urteetan, badira behar batzuk aldatu ez direnak: arazoak dituzten pertsonen laguntza eskaintzea horietako bat da.

Osasun mentalarekin arazoak dituzten pertsonen ez dute bizitza erraza izan mendeetan zehar. Gizarteak baztertzen zituen. Izkina batera bidaltzen zituen. Bakar-bakarrik zeuden. Horregatik txalotzen dugu gaur Santa Aguedako Osasun Etxea irekitzeko pausua. Laguntza behar-beharrezkoa zuten bizilagun horientzako esku salbatzailea izan zen.

Ondoren, Osasun Etxe horretatik, San Juan de Dios eta Aita Menni ospitaleak zabaldu ziren eta ehunka lagun artatu dituzue arrez geroztik. Zeinen garrantzitsua den inor ere atzean ez uztea... Zeinen garrantzitsua den pertsonen bizitza duin bat ematea... Zeinen garrantzitsua den pertsonak laguntzea...

Duela urte gutxi arte, gizarteak ez zituen arazo mentalak bere kezka nagusien artean. Beste batzuei gertatzen zitzaizkien gauzak ziren. Ezkutatu nahi ziren errealitateak besterik ez ziren. Zorionez, pertzepzio hau erabat aldatu da eta gizarteak bere egin ditu.

Por suerte, y gracias a la educación que hemos recibido, nuestra percepción está cambiando en buena medida. La salud mental se ha convertido en una de nuestras prioridades. Pero tenemos que seguir insistiendo en lo que es la salud mental, los trastornos mentales, la enfermedad mental, todos los conceptos. Alzheimer, esquizofrenia, autismo... Todas y todos podemos padecerlas. Somos muy conscientes de ello. En Euskadi lo tenemos claro, la ciudadanía lo tiene muy claro. Y actuamos en consecuencia.

Nuestra obligación es dar respuesta a esta realidad. Así lo hacemos a través de Osakidetza, que recoge el testigo de aquellas personas pioneras que dieron un

paso al frente a finales del siglo XIX para ofrecer respuesta a esta imperiosa necesidad.

En este País no dejamos a nadie atrás. Seguimos tendiendo la mano a las personas que lo necesitan. Es nuestra prioridad. Nuestra obligación. Forma parte de nuestros principios y valores, tanto desde el punto de vista de salud como también desde el punto de vista sociosanitario.

Aita Menni y San Juan de Dios. Hablamos de dos instituciones referentes en la atención a la salud mental, a los trastornos mentales, a la enfermedad mental. Con una profunda vocación de servicio público. Con capacidad de adaptación y mejora de la oferta sociosanitaria a la situación de cada momento en Euskadi.

Dos instituciones, junto con Hermanas Hospitalarias, que trabajan por una sociedad en la que todas las personas tengan una vida digna.

Aitzindariak izan zineten pertsona ahulენტzat zerbitzuak sortzen, erakunde publikoek gure erantzukizuna hartu baino hamarkada batzuk lehenago. Eta egin genuenean, bidelagun bihurtu ginen, gure indarrak batuz.

Horregatik azpimarratzen dut Jaurlaritzaren, gainerako erakundeen eta irabazimorik gabeko erakundeen arteko lankidetzak, beti pertsona ahulenei zerbitzuak ematea helburu. Auzolanean.

Jaurlaritzak bide honetan jarraituko du. Zerbitzuak bermatzen, hobetzen eta gaurkotzen. Horrelako zerbitzuak ez baitira inoiz ere behar eguna iristen den arte. Eta momentua iristean, osasun sistema publikoa prest egon behar da. Prest dago.

Osasun mentala gure lehenetasuna da. Gizarteak duen beharra da. Eusko Jaurlaritzak eta Osakidetzak errealitate honi erantzuna ematen jarraituko dugu.

Berriz ere, zorionak egindako guztiagatik!

Segi beharrezkoa dugun zerbitzu hau eskaintzen eta hobetzen. Lan paregabea egiten ari zarete.

Zorionak eta, bihotz bihotzez, eskerrik asko!